



MONDRAGON KORPORAZIOA

PRENTSA DOSIERRA

MONDRAGON Korporazioa, laburbilduta

- Lehenengo euskal industri taldea gara eta Espainiako hamargarrena, eta munduan erreferentzia gara lankidetzaz bidezko lanaren eremuan.
- Pertsonen protagonismoak eta elkartasunak ahalbidetu dute gure kooperatiben garapena duela sei hamarkadatik hona.
- Enpleguaren aldeko konpromiso irmoa dugu.
- Kooperatiba autonomo eta juridikoki independenteen multzo bat gara, hainbat elkartasun mekanismoren bidez elkartuta.
- Kooperatiben arteko elkartasun mekanismoek berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera berrien sustapena babesten dituzte.
- Liderrak gara oso sektore dibertsifikatuetan: makina-erreminta, jasokuntza, ekipo ondasunak, automobilgintza, aholkularitza, eraikuntza...
- Prestakuntzan sinesten dugu eta, horregatik, geure unibertsitatea dugu (Mondragon Unibertsitatea); baita berrikuntzan ere, eta 15 zentro teknologikok osatutako sarea dugu.

MONDRAGON, hainbat zifra

- MONDRAGONen 264 erakunde daude (horietatik 96 kooperatiba dira), eta bertan 81.507 pertsonak lan egiten dute.
- 39.131 pertsonak Industria Arloan lan egiten dute, 38.878 Banaketa Arloan, 2.164 Finantza Arloan eta 1.335 Ezagutza Arloan.
- Gure langileen %43,4 Euskal Autonomia Erkidegoan daude, %38,9 Espainiako gainerako lurraldeetan, eta %17,7 nazioarteko merkatuan.
- 2019. urtea 11.608 milioi euroko salmentekin itxi genuen.
- Salmenten heren bat atzerrian egiten dira, non 141 lantokitan 14.455 pertsonak lan egiten duten.
- 2019an 507 milioi euro inbertitu genuen.
- 521 patente-familia dauzkagu, 14 zentro teknologiko eta 2.189 ikertzaile. 2019an 188 milioi euro inbertitu genuen I+G+B arloan.

MONDRAGONeko gobernua, laburrean

- MONDRAGONeko protagonistak bere bazkide langileak dira. Lanpostuan probaldi bat gainditu behar izaten dute, eskuarki sei hilabetetik urte batera artekoa, eta ondoren bazkidea eta kooperatiba libre dira behin betiko sarrera gauzatzeko edo deuseztatzeko.
- MONDRAGON Korporazioko kooperatibek nork bere antolamendu egiturak eta izaera juridiko propioak mantentzen dituzte.
- Horrez gain, Estaldurako kooperatibak edo "kooperatiben kooperatibak" gaude. Horietatik ezagunenetakoa LagunAro, EPSV da, estaldura soziosanitarioa eta gizarte aurreikuspena eskaintzen dituena.
- MONDRAGONeko kooperatibak hainbat dibisiotan banatuta daude, lan arloaren eta parekotasunen arabera. Eta lau arlo handi daude: finantzak, ezagutza, banaketa eta industria. Arlo bakoitzak bere esparru estrategiko berezia dauka.
- Kooperatiba bakoitzaren organo gorena Batzar Nagusia da, bazkide guztiek adierazitako borondate sozialaren adierazpidea.
- Batzar Nagusiak Kontseilu Errektorea hautatzen du, hau da, kooperatibaren gobernu eta ordezkari organoa.
- Zuzendaritza Kontseilu bat ere badago, zuzendaritza taldearen eginkizunak koordinatzen eta Kontseilu Errektorea aholkatzen duena. Zuzendaritza Kontseiluan gerentea eta hainbat zuzendari daude. Gerentea Kontseilu Errektoreak aukeratzen du.
- Kontseilu Sozialak, berriz, bazkideen kolektiboa ordezkatzeko du kooperatibaren barne instantzien aurrean. Kideen kopurua kooperatibaren bazkide kopuruaren arabera zehazten da.
- Azkenik, Zaintza Batzordeak kontabilitateko alderdiak edo bere eskumenekoak izan daitezkeen beste batzuk zuzen betetzen direla begiratzen du.
- Amaitzeko, Korporazioa administratzeko eta gidatzeko irizpide estrategikoak Kongresu Kooperatiboan erabakitzen dira: Kongresua kooperatibak ordezkatzeko dituzten 650 kidek osatzen dute. Horren mende dago, esaterako, politika sozio-enpresariala erabakitzea.



2017/2020 Plan Estrategikoaren giltzarriak:

2017/2020 laurtekoaren bide orrian, erronka nagusia da negozioen egitura eraldatzea, egungo jardueren bilakaera gidatuz balio handiagoko prestazioetarantz, eta gure jarduerak balio erantsi handiko sektoreetan garatuz.

Erronka horren ardatza etorkizuneko bost estrategia nagusi dira:

1. **Lankidetzatza Taldeko enpresen artean eta hirugarrenekin**, abantaila lehiakorrak sortzeko eta proiektu berriei ekin ahal izateko.
2. **Enpresa berrikuntza eta sustapena**, gure negozioak berritzeko eta jarduera berriak sortzeko.
3. **Presentzia Globala**, merkatu globalizatuan lehiatu ahal izateko.
4. **Finantzaketa**, etorkizunean negozioen iraunkortasunari eusteko.
5. **Konpromisoa eta nortasun kooperatiboa**, pertsonen proiektu sozioenpresarialaren iraunkortasunarekin duten konpromisoa bulztatzeko.



MONDRAGON Interneten

MONDRAGON Korporazioak honako presentzia hauek ditu Interneten, eta horiei kooperatiben ingurune guztia gehitu behar zaie, norberaren web eta sare sozialetako garapenekin:

Webgunea, 15 hizkuntzatan

www.mondragon-corporation.com

Bertan Korporazioaren prentsa aretoa eta enpresa, hezkuntza ikastetxe eta zentro teknologiko guztien direktorioa dago, MONDRAGONeko gobernu organoen eta historiaren gaineko informazio ateporalaz gainera, emaitza ekonomikoekin batera.

Twitter gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez

twitter.com/esMONDRAGON (**castellano**, 20.400 seguidores)

twitter.com/euMONDRAGON (**euskera**, 3,900 jarraitzaile)

twitter.com/enMONDRAGON (**english**, 7.600 followers)

Facebooken ere

[Facebook.com/MONDRAGON.Corporation](https://facebook.com/MONDRAGON.Corporation)

TU Lankide

bazkide langileen aldizkariaren Interneteko bertsioa, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz. Korporazioaren eta TU Lankideren hileko buletin elektronikoak

tulankide.com

Tumblr

Tumblr orria, Korporazioari buruz komunikabideetako inpaktu nagusiak jasotzen dituen.

aboutmondragon.tumblr.com

Argazki galeria Flickren

flickr.com/photos/mondragoncorporation/



Bideoak Youtuben eta Vimeon dituen bere kanaletan

youtube.com/user/mondragoncorporation
vimeo.com/mondragoncorp

Bere orrialde profesionala ere bisitatu daiteke, Linkedinen

linkedin.com/company/mondragon-corporation

Eta aurkezpenak kontsultatu, SlideSharen, edo Korporazioaren historia Wikipediako orrian, zeina Entziklopedia Askeko erabiltzaileek 20 hizkuntza baino gehiagora itzulita duten.

slideshare.net/MONDRAGONCorporation
en.wikipedia.org/wiki/Mondragon_Corporation

Horrez gain, kooperatiba bakoitzak bere presentzia independentea du Interneten.

Lotura interesgarriak:

[Emitza ekonomikoa](#)
[MONDRAGON osatzen duten kooperatiba eta enpresa guztiak](#)

